

Gazteria eta ingurumena

Nafarroa 2020

Baloreak, praktikak, ohiturak eta gaurkotasuna Nafarroako ingurumenaren eta gazteriaren unibertsoan.

Gazteria eta ingurumena

Nafarroa 2020

Baloreak, praktikak, ohiturak eta gaurkotasuna Nafarroako ingurumenaren eta gazteriaren unibertsoan.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Instituto
Navarro de
la Juventud



Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

© Nafarroako Gobernua (Nafarroako Gazteriaren Institutua)

Ikerlana egin duen enpresa: BCR S.L.

Lehenengo argitalpena: 2020ko otsaila

Diseinua eta maketazioa: Ana García Senosiáin

Inprenta: Arga (2002 Servicios Gráficos Navarra S.L.)

LG NA 315-2020

Argitalpen honen edukiaren erreproduzizio partzial edo erabatekoa baimenduta dago, iturriaren aipua eginez.

Eta gazteriari entzuten badiogu? 2019an mobilizazio global bat ikusi genuen, munduko zoko guztietako gazteek gidatua, eta horri esker agenda politikoaren lehen lerroa etorri zen, azkenean, krisi klimatikoari aurre egiteko presako neurriak hartu beharra. Urte horretan berean, 2019an, klimari buruzko goi-bilera izan zen Madrilen, eta horretan denbora asko behar izan zen akordio batera iristeko. Akordio horrek, gainera, ez zituen ase bilera horren gainean zeuden esperantzak. Berriro ere atzeratu egin dira erabaki handiak, hau da, klima aldaketak planetari eragiten dizkion kalteei kemenez aurre egiteko hartu beharreko erabakiak, itzulbiderik ez duen puntura iristear gauden une honetan.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Gazteriaren Behatokiaren bidez, zenbait azterlan egiten ditu Nafarroako gazteen errealitatea hobeto ulertu dezagun. Oraingoan jakin nahi izan dugu zer iritzi eta sentimen dauden ingurumenari buruz. Hemendik aurrera, jakina, hoberena litzateke politika publiko adoretsuak ezartzea orain gazteek egiten dituzten eskaera eta erreibindikazioei –gure gizarteak dituen erronka handietako bat jasotzen dutenei– erantzuteko; politika horiek neurri egokiak izan beharko lituzkete ingurumena eta planetaren biziraupena defendatzeko. Entzun dezagun gazteek diotena. Ez daukagu honen ordezeko planetarik.

Carlos Amatriain Busto
Zuzendari kudeatzailea
Nafarroako Gazteriaren Institutua

Nafarroako gazteriaeta ingurumena

Nafarroa 2020

Emitzen txostena

1. Sarrera: planteamendu metodologikoa	9
1.1. Ikerketaren helburuak	9
1.2. Fitxa teknikoa	10
1.3. Laginaren profila	12
2. Nafarroako gazteriaren iritzia ingurumenari dagokionez	19
2.1. Ingurumenari dagokionez Nafarroako gazteriak adierazi duen kezka-maila	19
2.2. Ingurumenarekin zerikusia duten arazo desberdinei ematen zaien garrantzia	22
2.3. Ingurumenean dugun inpaktuaren balorazioa eta zientziarekiko konfiantza	32
3. Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren arteko harremana	35
3.1. Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren arteko harremana	35
3.2. Ingurumena babestea sustatzeko ekintzen balorazioa	37
4. Etorkizuneko energia-iturriak, nafarroako gazteen iritziz	41
5. Gobernuak eta herrialdeek ingurumenaren babesarekiko duten konpromiso-maila	43
6. Nafarroako gazteriak ingurumenari dagokionez dituen jarrerak eta jokabideak	45
6.1. Ingurumenaren babesarekiko jarrera pertsonala	45
6.2. Ingurumenaren inguruko asoziazionismoa eta parte-hartze aktiboa	48
6.3. Gazteen tipologia, ingurumenarekiko duten jarrerari dagokionez	53
6.4. Nafarroako gazteriaren «eko» jokabideak	54
6.5. Ingurumenaren aldeko konpromiso ekonomikoekiko jarrera	60
Amaierako gogoetak	63

1

Sarrera:
Planteamendu
metodologikoa

1.1. Ikerketaren helburuak

Helburu espezifikoak

Helburu orokor horri erantzuna emateko landu diren helburu zehatzak hauek dira:

- † Ingurumenarekin zerikusia duten alderdiekiko kezka-maila neurtzea eta, gazteen iritziz, ekosistemarengan nahiz haiengan inpaktu handiena duten arazoak agerian jartzea.
- † Nafarroako gazteen ikuspuntutik ingurumena babesteko egokienak diren neurriak identifikatzea.
- † Lehtasunezkoak izan beharko lirartekeen energia-iturriei buruzko perzeptzioa zehaztea.
- † Ingurumenari dagokionez gazteek eguneroko bizitzan dituzten jokabide pertsonalak eta arlo horretan duten konpromiso eta parte-hartze maila.

Helburu orokorra:

- † Ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin zerikusia duten alderdi desberdinen inguruan Nafarroako gazteek dituzten iritziak eta jarraitzeak ezagutzea, bai eta egunerokoan hartu duten konpromiso-maila ere.



1.2. Fitxa teknikoa

Metodologia

Laginaren ausazko diseinuan oinarritutako miaketa eta analisi kuantitatiboaren metodologia.

Ikertzeko teknika

Telefono bidezko elkarrizketa galde-tegi egituratuarekin; hau da, galdera itxiekin eta balorazio-eskalekin.

C.A.T.I. (Computer Aided Telephone Interview) sistemaren bidez aplikatutako telefono bidezko elkarrizketa, Integra inkesta-sistemarekin doitutako plataforma batean.

Ikertekaren xede-taldea

Nafarroan erroldatuta dauden eta 16 eta 30 urte bitarteko adina duten gazte guztiak.

Laginaren tamaina

Telefono bidezko 800 elkarrizketa egin dira; beraz, kolektibo honi dagokionez egin nahi diren kalkulu guztietarako, laginaren errore-marjina hau da: $e = \% \pm 3,5$

Laginaren diseinua

Inkestarako laginaren banaketa eremuarekiko, adin-taldearekiko eta generoarekiko esleipen-irizpide proportzionalaren arabera zehaztu da.

Hala ere, azken inkestak egin ondoren, laginketaren azkenak ez datoz bat esleipen-irizpide proportzional horrekin. Beraz, azken lagina honako hau izan da:

	18 urte baino gutxiago		18 eta 24 urte bitarte		25 eta 30 urte bitarte		GUZTIRA
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	
Ipar Mendebaldea	3	2	12	10	28	18	73
Pirinioak	-	-	3	2	3	7	15
Iruña	42	33	121	82	90	112	480
Lizarreria	3	2	12	3	7	5	32
Nafarroako Eki-erdialdea	5	2	9	8	8	3	35
Erribera	3	3	17	15	9	8	55
Tutera	2	13	27	33	18	17	110
Osotara	58	55	201	153	163	170	800

% 95,5eko konfiantza maila baterako, 2s μ -ri dagokionean, $p = q = 0,5$ izanik.

Ikerketaren datak: Ikerketaren askotariko zeregin eta prozesuak data hauetan egin dira:

- Galdeketa onartzea: 2019ko irailaren 27a.
- Inkesta-lanaren hasiera: 2019ko urriaren 7a.
- Inkesta-lanaren amaiera: 2019ko urriaren 29a.
- Tabulazioa, estatistika-ustiapena: 2019ko urriaren 30etik azaroaren 6ra.
- Emaitzen txostena: 2019ko azaroaren 15a

Inkesta-lanaz arduratzen den enpresa: BCR S.L. enpresa arduratu da inkesta-lana eta informazioaren estatistika-ustiapena egiteaz.

Laginaren diseinua: orekatzea eta haztatzea

Adin, genero edo eremuren batek laginean ordezkari gehiegi izatearen ondorioz alborapenen bat egitea saihesteko, beharrezkoa izan da gazteek

lurraldean hartzen duten benetako proportzioa haztatzea.

Beraz, 16 eta 30 urte bitarteko biztanleen eremu, genero eta adinaren araberako banaketa kontuan izanik, horrela geratu da banaketa horri dagokion lagina:

	18 urte baino gutxiago		18 eta 24 urte bitarte		25 eta 30 urte bitarte		GUZTIRA
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	
Ipar Mendebaldea	4	4	15	13	13	12	61
Pirinioak	-	-	4	4	3	3	14
Iruña	32	32	110	108	91	92	465
Lizarrerria	3	3	10	9	8	8	41
Nafarroako Eki-erdialdea	3	2	9	8	8	7	37
Erribera	5	4	17	16	16	15	73
Tutera	7	7	25	24	22	22	108
Osoata	54	52	190	183	162	160	800

Haztatzeke irizpidea: Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2018ko urtarrilaren bateko Errolda Jarraituaren estatistika Udalerriaren araberako datuak.

1.3. Laginaren profila

Parte hartu duten gazteen batez besteko adina 24 urte da. % 13,2k 18 urte baino gutxiago dituzte, % 46,6 18 eta 24 urte bitartekoak dira, eta % 40,2k 25 eta 30 urte artean dituzte.

Elkarrizketatutakoen % 33,6 hiri-buruan, Iruñean, bizi dira. % 30,8 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi dira, eta % 35,6 udalerritxikiagoetan.

Gazteen % 82,3 Nafarroan jaiotuta dira, % 6,8 Estatuko gainerako lurraldeetan eta % 10,9k atzerrian dituzte jatorria.

Hamarretik zazpi, % 69,6 jatorrizko familiaren etxean bizi da. 25 urtetik gorako kasuan, gutxiago dira egoera horretan daudenak, % 42,9; izan ere, gehienek pisua partekatzen dute beste pertsona batzuekin, edo familia bat osatu dute beren kabuz.

Gazteen % 35,1ek diote beren diru-sarrerekin soilik bizi direla; 25 eta 30 urte bitarteko taldean daude gehienak. Bestalde, % 24,7 beste pertsona batzuen diru-sarrerekin soilik bizi dira, eta % 20,5ek diote batez ere beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi direla baina diru-sarrera propioak ere badituztela.

Gazteen % 39,6k baieztatzen dute lana soilik egiten dutela, % 22,8k ikasi eta lan egiten dute, eta % 33,8 ikasketak egiten ari dira.

Azkenik, % 36,7k goi-mailako ikasketak egin dituzte, unibertsitate-mailakoak; %54,1ek erdi-mailako ikasketak egin dituzte, % 9,3k lehen mailako ikasketak dituzte.



Generoa


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Adina


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Batez bestekoa: 24 urte.




Populazio kopurua

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




Non jaio zara?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Non bizi zara normalean urtean zehar?*


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




* Erantzuteko aukera desberdinak iradoki ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Egoera ekonomiko pertsonalari dagokionez, hauetako zein dator bat zure egoerarekin?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



- Nire diru-sarrerekin soilik bizi naiz.
- Batez ere nire diru-sarrerekin bizi naiz, baina beste pertsona batzuen laguntzarekin.
- Batez ere beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi naiz, baina badut diru-sarreraren bat.
- Soilik beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi naiz.
- Ed/Ee




18 urtetik behera (n=106)
18 eta 24 urte bitarte (n=373)
25 eta 30 urte bitarte (n=322)

* Erantzuteko aukera desberdinak iradoki ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Gaur egun, zein egoeratan zaude?*


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukera desberdinak iradoki ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Zein dira orain arte egin dituzun maila ofizial altueneko ikasketak?*

Oinarria: Elkarriketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukera desberdinak iradoki ziren. Erantzun bakarra onartu zen.



2

Nafarroako gazteriaren iritzia ingurumenari dagokionez

2.1. Ingurumenari dagokionez Nafarroako gazteriak adierazi duen kezka-maila

† Ingurumenari dagokionez, Nafarroako **16 eta 30 urte bitarteko gazteen % 34,0k** adierazten dute oso kezkatuta daudela, eta % 58,1ek diote nahiko kezkatuta daudela. Gazte gutxi batzuek soilik, % 8,0k gutxi gora-behera, esaten dute ez daudela oso kezkatuta.


† **otik 10erako eskalan**, Nafarroako gazteriak ingurumenarekiko duen **kezka-maila 8 puntukoa** da, batez beste.

† Ingurumenarekiko Kezkaren Adierazlea (kezkatuta dauden gazteen eta kezkarik ez duten gazteen ehunekoen arteko diferentzia) % **84,2koa** da.

† Jarraian ikusten ahal den bezala, ingurumenarekiko kezka-maila altuagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino (**eskalan 8,2 puntu eta 7,8 puntu**, hurrenez hurren). Halaber, elkarrizketatutako pertsonen adinak gora egin ahala, ingurumenaren inguruan duten kontzientzia ere areagotu egiten da. Era berean, kezka gehiago adierazi dute goi-mailako ikasketak amaitu dituztenek.

Orokorrean, ingurumenari dagokionez, zenbateraino esanen zenuke kezkatzen zaituztela ingurumenarekin zerikusia duten gaiek?


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Gutxienekoa 0, «ez nau batere kezkatzen»; gehienekoa 10, «asko kezkatzen nau».

Orokorrean, ingurumenari dagokionez, zenbateraino esanen zenuke kezkatzen zaituztela ingurumenarekin zerikusia duten gaiek?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




Kezka maila

- Ez nau batere kezkatzen
- Gutxi kezkatzen nau
- Zertxobait kezkatzen nau
- Dezente kezkatzen nau
- Asko kezkatzen nau

Ingurumenarekiko Kezkaren Adierazlea: kezkatuta dauden gazteen % - kezkarik ez duten gazteen %.
 * Gutxienekoa 0, «ez nau batere kezkatzen»; gehienez 10, «asko kezkatzen nau» Ingurumenarekiko kezkaren adierazlea.

2.2. Ingurumenarekin zerikusia duten arazo desberdinei ematen zaien garrantzia

Ingurumenarekin zerikusia duten arazo garrantzitsuenen artean, honako hau dago lehen postuan:




Klima-aldaketak aipamen bikoitzak ditu, hurrengo arazoekin alderatuta; beraz, aurre egin behar diogun arazo nagusitzat hartzen dute, nolabait.

Arao horiek elkarrizketatutako pertsonengan eta haien familiengan duten eraginari dagokionez, % 28k esaten dute arazo horiek ez dietela eragiten eta haien eguneroko bizitzetan inpaktu handiena duten arazoak bestelakoak direla.

Gazteen % 35ek adierazten dute klima-aldaketa dela haien bizitzetan eta familiengan eragin handiena duen arazoetako bat. Bigarrenik, airearen kutsadura aipatzen dute (%17,3); ondoren, plastikozko hondakinak (% 13,5) eta etxeko zaborra murriztea (% 12,6).

Jarraian, arazo desberdinen zerrenda bat irakurriko dizut. Adierazi zein diren, zure iritziz, hiru arazo garrantzitsuenak ingurumenari dagokionez*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Jarraian, arazo desberdinen zerrenda bat irakurriko dizut. Adierazi zein diren, zure iritziz, hiru arazo garrantzitsuenak ingurumenari dagokionez*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Gizona (n=406)
Emakumea (n=394)

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Jarraian, arazo desberdinen zerrenda bat irakurriko dizut. Adierazi zein diren, zure iritziz, hiru arazo garrantzitsuenak ingurumenari dagokionez*

Oinarria: Elkarriketatutako pertsonak, guztira.

	GUZTIRA	ADINA		
		18 urtetik behera (n = 106)	18 eta 24 urte bitarte (n = 366)	25 eta 30 urte bitarte (n = 328)
Klima-aldaketa	% 66,0	% 78,5	% 64,0	% 64,4
Plastikozko hondakinak (polsak, mikroplastikoak...)	% 32,9	% 28,7	% 34,9	% 32,0
Uraren kutsadura	% 32,0	% 35,0	% 38,2	% 23,8
Airearen kutsadura	% 30,5	% 22,7	% 34,5	% 28,3
Biodibertsitatearen galera (animalien eta landareen espezieak desagertzea)	% 24,2	% 39,3	% 18,6	% 25,7
Ur gabezia	% 22,0	% 17,2	% 19,1	% 27,0
Baliabide naturalak ahitzea	% 18,4	% 32,1	% 18,3	% 14,0
Hondakin toxikoak edo atomikoak	% 13,8	% 9,2	% 14,1	% 14,9
Elikagaiak genetikoki aldatzea	% 13,0	% 8,3	% 11,9	% 15,8
Etxeko zabora murriztea	% 12,7	% 6,2	% 11,5	% 16,3
Produktu kimikoak eta pestizidak	% 10,6	% 2,0	% 9,1	% 15,1
Horietako bat ere ez	% 0,5	-	% 0,5	% 0,6
Ez daki / Ez du erantzun	% 0,7	% 0,9	% 1,1	-

■ Lehenengo faktorea


■ Bigarren faktorea

■ Hirugarren faktorea

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Eta zein arazok esanen zenuke duela eragin handiena zuregan eta zure familiarengan?*


Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Eta zein arazok esanen zenuke duela eragin handiena zuregan eta zure familiarengan?*

Oinarria: Elkarriketatutako pertsonak, guztira.



■ Gizona (n=406)
■ Emakumea (n=394)

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Jarraian, arazo desberdinen zerrenda bat irakurriko dizut. Adierazi zein diren, zure iritziz, hiru arazo garrantzitsuenak ingurumenari dagokionez*
 Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

	GUZTIRA	ADINA		
		18 urtetik behera (n = 106)	18 eta 24 urte bitarte (n = 366)	25 eta 30 urte bitarte (n = 328)
Klima-aldaketa	% 35,0	% 51,4	% 32,1	% 32,9
Plastikozko hondakinak (poltsak, mikroplastikoak...)	% 17,3	% 14,1	% 17,3	% 18,3
Uraren kutsadura	% 13,5	% 4,8	% 13,6	% 16,2
Airearen kutsadura	% 12,6	% 4,2	% 12,1	% 15,9
Biodibertsitatearen galera (animalien eta landareen espezieak desagertzea)	% 11,3	% 6,4	% 12,2	% 11,8
Ur gabezia	% 9,4	% 5,9	% 8,2	% 12,0
Baliabide naturalak ahitzea	% 7,0	% 2,4	% 5,1	% 10,6
Hondakin toxikoak edo atomikoak	% 5,9	% 4,2	% 5,3	% 7,2
Elikagaiak genetikoki aldatzea	% 5,1	% 2,5	% 6,6	% 4,1
Etxeko zabora murriztea	% 4,2	-	% 3,5	% 6,4
Produktu kimikoak eta pestizidak	% 4,0	% 1,4	% 3,6	% 5,4
Horietako bat ere ez	% 28,0	% 30,2	% 30,8	% 24,0
Ez daki / Ez du erantzun	% 2,2	-	% 2,4	% 2,6


- Lehenengo faktorea
- Bigarren faktorea
- Hirugarren faktorea

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.

Laburrean

Ingurumenari eta gazteari pertsonalki eragiten dioten arazoak*





Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Gehienez ere, hiru erantzun.



Alderdi desberdinek ingurumena-
rentzat duten arriskua balioztatzean,
gazteen gehiengoak uste du biziki
arriskutsuak edo oso arriskutsuak
direla honako hauek:

-  Ibai, laku edo errekan isurtzen diren hondakinak (% 68,7)
-  Animalien eta/edo landareen espezieak desagertzea (% 64,4)
-  Industriak eragiten dituen emisioak (% 63,9)
-  Klima-aldaketaren ondorioz lurraren tenperatura igotzea (% 61,5).


«Arrisku larriaren» pertzepzioa nabarmen gutxitzen da automobilen erabilerak eragindako emisioei dagokienez; izan ere, % 33,0k soilik uste du oso arriskutsuak direla. Aldiz, elkarrizketatutako bi pertsonetatik batek «nahiko arriskutsuak» direla adierazten du

Bestalde, nekazaritzan pestizidak eta produktu kimikoak erabiltzeari eta, batez ere, labore jakin batzuk genetikoki aldatzeari dagokionez, ez da horrenbesteko arriskua hautematen, nahiz eta gazteen erdiek baino gehiagok uste duten ohitura horiek nahiko arriskutsuak edo oso arriskutsuak direla.



Zure ustez, zenbateraino dira arriskutsuak ingurumenarentzat elementu hauek?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Arrisku maila



* Arriskuaren Adierazlea: Oso/nahiko arriskutsua % - zertxobait/ez oso/batere arriskutsua.

* Gutxienekoa 0, «batere arriskutsua»; gehiengoa 10, «oso arriskutsua».

2.3. Ingurumenean dugun inpaktuaren balorazioa eta zientziarekiko konfiantza

Zalantzarik gabe, Nafarroako gazteek ez dute uste, orokorrean, gizartea gehiegi kezkatzen denik ingurumenaz, eta uste dute behar baino gutxiago kezkatzen direla prezioez eta enpleguaz. Gazteek baieztapen horrekiko duten batez besteko adostasun-maila 4,2 puntu da. % 20,9 dira prezioei eta enpleguari lehentasuna ematea egokitzat jotzen duten gazteak.

Gazteen % 78,0k adierazten du ados dagoela gaur egun egiten dugun guztiak ingurumenari kalte egiten diola esatearekin; ondorioz, esan genezake ez dutela espero planetaren jasangarritasuna hobetzea, gure bizimoduan aldaketarik egin ezean.



Halaber, ez dago adostasunik gizakiaren aurrerapenak ingurumenean eragiten ahal duen kalteak jendea gehiegi kezkatzen duela dioen baieztapenari dagokionez. Baieztapen horrekiko batez besteko adostasun-maila 3,9 puntukoa da 1etik 10erako eskalan.

Gainera, ez dute konfiantza handirik zientziarengan, ingurumenearekin zerikusia duten etorkizuneko arazoak konponduko dituen aktibo gisa. % 17,6k diote ados daudela baieztapen horrekin, eta % 53,8k esaten dute ez daudela ados.



Baieztapenekiko adostasun-maila

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.





Adostasun-mailaren ehunekoa



* Gutxienekoa 0, «batere ados»; gehienekoa 10, «gutziz ados».

Baieztapenekiko adostasun-maila*

Base: Total de personas entrevistadas.



* Gutxienekoa 0, «batere ados»; gehienekoa 10, «guztiz ados».

3

Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren arteko harremana

3.1. Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren arteko harremana

Hazkunde ekonomikoak eta biztanleriaren hazkundeak ingurumenarekin duten harremanari dagokionez Nafarroako gazteek dituzten iritziak kontuan hartuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

Orokorrean ados daude esatean **planetak ezin izanen diola eutsi biztanleriak egun duen hazkunde-erritmoari**, elkarrizketatutakoen % 76,9k baieztatzen duen bezala. Ehuneko hori biztanle gazteen kopuru osoaren arabera kalkulaturaz gero, Foru Komunitateko 74.218 gazte bat etorriko lirateke iritzi horrekin.


Bestalde, % 41,8 ez dago ados baieztapen honekin: «hazkunde ekonomikoa beti da kaltegarria ingurumenarentzat». Beraz, 40.874 gazte izanen lirateke **hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren babesa bateragarriak direla uste dutenak**.

Hazkunde ekonomikoari dagokionez, % 31,4k uste dute maila altuagoan ala baxuagoan beharrezkoa dela, **ingurumenaren babesarekin lotuz** (gutxi gora-behera 30.411 gaztek). Aldiz, gehiago dira (% 35,5) ez dituztenak bi alderdi horiek ekuazio berean jartzen, eta % 32,6 zalantzan daude.




Eta hazkunde edo garapen ekonomikoari eta ingurumenarekin duen harremanari dagokionez, zenbateraino zaude ados ala kontra?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Gutxienekoa 0, «batere ados»; gehienekoa 10, «guztiz ados».




3.2. Ingurumena babestea sustatzeko ekintzen balorazioa

Elkarrizketatutako **hamar pertsonetatik ia lau (% 39,3)** ados daude **enpresei eta industriari informazio eta prestakuntza gehiago ematearekin, ingurumena babestearen abantailak ezagutu ditzaten.**

Antzeko ehuneko batek (% 36,2k) adierazten du neurri hertsatzaileak ezarri beharko liratekeela, hala nola isun handiak ingurumenari kalte egiten dioten enpresei. Azkenik, % 23,2 alderdi horretan jardun egokia duten enpresa eta industriei abantaila fiskalak ematearen aldekoak dira.

Galdera bera biztanleria osoari aplikatuz gero, informazioa eta prestakuntza ematearen aukerak pisu handiagoa hartzen du; beraz, badirudi gazteen ustez enpresek erantzukizun handiagoa dutela ingurumenean dугun inpaktuari dagokionez. Gazteen **% 55,2k uste du heziketa dela jendeak ingurumena babestea eta ohitura positiboak hartzea lortzeko modurik onena.**


Biztanleen artean ingurumenarekiko ohitura positibo horiek sustatzeko, gazte gehiagok hautatzen dituzte abantaila fiskalak isunak beharrean.



Aukera hauetako zein iruditzen zaizu onena enpresek eta industriak ingurumena babestea lortzeko?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Enpresak eta Industria




	GENEROA		ADINA		
	Gizona (n = 406)	Emakumea (n = 394)	18 urtetik behera (n = 106)	18 eta 24 urte bitarte (n = 366)	25 eta 30 urte bitarte (n = 328)
Isun handiak ingurumenari kalte egiten dioten enpresa eta industriei	% 32,3	% 40,3	% 31,4	% 35,6	% 38,5
Abantaila fiskalak ingurumenari kalte egiten dioten enpresa eta industriei	% 25,0	% 21,2	% 15,1	% 21,6	% 27,6
Informazio eta prestakuntza gehiago, enpresek eta industriek ingurumena babestearen abantailak ezagutu dituzten	% 40,0	% 38,5	% 53,6	% 41,0	% 32,5
Ed/Ee	% 2,7	-	-	% 1,7	% 1,4

Gehien hautatu den aukera

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen

Eta aukera hauetako zein iruditzen zaizu onena jendeak ingurumena babestea lortzeko?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



	GENEROA		ADINA		
	Gizona (n = 406)	Emakumea (n = 394)	18 urtetik behera (n = 106)	18 eta 24 urte bitarte (n = 366)	25 eta 30 urte bitarte (n = 328)
Isun handiak ingurumenari kalte egiten dioten pertsoneri	% 19,0	% 21,1	% 27,6	% 20,5	% 17,0
Abantaila fiskalak ingurumenari kalte egiten dioten pertsoneri	% 24,8	% 22,8	% 15,1	% 21,7	% 29,2
Informazio eta prestakuntza gehiago, pertsonak ingurumena babestearen abantailak ezagutu ditzaten	% 54,9	% 55,5	% 57,3	% 56,5	% 53,0
Ed/Ee	% 1,3	% 0,6	-	% 1,3	% 0,7

■ Gehien hautatu den aukera

* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen


Ingurumenaren babesa sustatzeko alternatibak

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Hezkuntza




Enpresak eta Industria




≈ 38.429 gazte
Batez ere gizonak
eta 24 urtetik
gorakoak

Biztanle kopurua




≈ 53.977 gazte

Isunak




≈ 35.398 gazte
Batez ere emakumeak
eta 25 urtetik gorakoak




≈ 19.655 gazte

Zerga pizgarriak



≈ 22.686 gazte
Batez ere gizonak,
eta interesa areagotu
egiten da adinak gora
egin ahala




≈ 23.273 gazte

4

Etorkizuneko energia-iturriak, Nafarroako gazteen iritziz


† **Elkarrizketatutako gazte nafarren % 85,4k** uste dute Espainian **lehentasuna eman** beharko litzaiekeela **energia berriztagarriei (eguzki-energia, eolikoa edo hidraulikoa)** herrialdearen etorkizuneko premia energetikoak asetzeko. Iritzi hori profil eta adin-talde guztietako gazteek dute.

Proposatutako gainerako alternatiben artean, laboreetatik eratorritako bioerregaiena da interes apur bat piztu duena (% 6,6), gutxi bada ere.



Energia-iturri hauetako zeini eman beharko litzaioke lehentasuna Espainian, etorkizuneko premia energetikoak asetzeko?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

5

La Gobernuek eta herrialdeek ingurumenaren babesarekiko duten konpromiso-maila

Nafarroako gazteen **% 82,8 ados** dago, gehiago ala gutxiago, esatean **Gobernuak legeak ezarri beharko lituzkeela enpresak eta herritarrak ingurumena babestera behartzeko**, baita horren ondorioz gure kabuz erabakitzeke eta gure ekintzen jabe izateko eskubidea murriztuko balitz ere. Horietatik % 39,6 guztiz ados daude baieztapen horrekin, eta % 43,3 nahiko ados daude.


Nafarroako gazteria ia osoaren iritziz, **ingurumenaren arazoari lehen-tasuna eman beharko litzaioke nazioarteko ikuspegitik**, eta Espainiak nahiz gainerako herrialdeek derrigor bete beharko lituzketen akordioak egin beharko lirateke. % 96,0 ados dago, gehiago ala gutxiago, baieztapen horrekin.

Herrialde pobreei edo garapen-bidean dauden herrialdeei ingurumena babestearen arloan exijitu beharko geniekeen esfortzuari dagokionez, % 42,2k uste dute herrialde pobreei ez zaiela esfortzu-maila bera eskatu behar ingurumena babesteko. Aldiz, % 32,1 ez daude ados, eta uste dute herrialde guztiei esfortzu-maila bera exijitu behar zaiela.



Adostasun-maila herrialdeek eta gobernuek ingurumenarekiko duten jarrerari dagokionez

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Gutxienezkoa 0, «batere ados»; gehienekoa 10, «gutziz ados».

6

Nafarroako gazteriak ingurumenari dagokionez dituen jarrerak eta jokabideak

6.1. Ingurumenaren babesarekiko jarrera pertsonala

Hamar gaztetatik lauk uste dute «ingurumenarentzat ona den guztia egiten duela, aintzat hartu gabe diru gehiago balio duen edo denbora gehiago behar duen».

Puntu horri dagokionez, % 41,3k tar-teko jarrera dute eta ez daude ez ados, ez kontra

Orokorrean, dena den, **Nafarroako gazteriak onartzen du norberaren jarrerak oso funtzio garrantzitsua betetzen duela ingurumena zain tzeko eta babesteko.** Hain zuzen ere, % 47,9 ez daude batere ados haiek ingurumenaren alde zerbait egitea zaila dela dioen baieztapenarekin. Halaber, % 36,1ek guztiz kontra daudela adierazi dute esatean ingurume-


naren alde ahal den guztia egiteak ez duela zentzurik gainerakoak berdin inplikatzeko ez badira.

Bestalde, % 48,4 ez daude ados bultzatzen ingurumena babestea baino gauza garrantzitsua goak daudela dioen baieztapenarekin.



Ingurumenarekiko inplikazio pertsonalarekin zerikusia duten baieztapenezikiko adostasun-maila

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.





Adostasun-mailaren ehunekoa



* Gutxienez 0, «batere ados»; gehieneko 10, «gutziz ados».

Ingurumenarekiko inplikazio pertsonalarekin zerikusia duten baieztapene-kiko adostasun-maila

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Gutxienekoa 0, «batere ados»; gehienekoa 10, «guztiz ados».

6.2. Ingurumenaren inguruko asoziazionismoa eta parte-hartze aktiboa

Nafarroako gazteek duten parte-hartzeari eta konpromiso aktiboari dagokionez, honako input hauek nabarmen ditzakegu:

Elkarteetan biltzea

Gazteen % 11,9k diote azken bost urteetan zehar ingurumena babesteko helburua duen talde edo elkar-teren bateko kide izan direla. Gazte guztiak aintzat hartuta, Foru Komunitateko 11.600 gazte izanen lirateke.

% 11,9

Sinadurak

Aktiboki parte hartzeko beste modu bat ekologiarekin eta/edo ingurumenarekin zerikusia duten eskaerak sinatzea da, eta % 36,1ek esaten dute halakoren bat sinatu dutela. Emakume gehiagok gizonek baino, ia hamar puntuko aldearekin. Halaber, parte-hartze handiagoa dute goi-mailako ikasketak egin dituztenek eta lana eta ikasketak egiten dituztenek.

% 36,1

Dohaintzak

% 12,7k (gutxi gora-behera 12.371 gaztek) dirua eman diote talde ekologistaren bati azken bost urteetan. Batez ere lan-munduan sartuta daudenek eta beren diru-sarrerekin soilik bizi direnek.

% 12,7

Manifestazioetara joatea

Era berean, Nafarroako gazteen % 41,5ek klimaren aldeko protesta-ekintzetan edo manifestazioetan parte hartu dute. Foru Komunitateko 40.555 gazte dira, gutxi gora-behera.

% 41,5

Mota horretako ekintzetan gehiago hartu dute parte ikasi bakarrik egiten dutenek eta, bereziki, 18 urtetik beherakoek; baliteke Greta Thunberg ekintzailearen martxa eta kontzentrazioekin zerikusia izatea.



G.13.: Azken bost urteetan...?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Ingurumena babesteko helburua duen talde edo elkarteren bateko kide zara edo izan zara




≈ 11.683 gazte nafar



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Azken bost urteetan...?*



Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Ingurumenarekin zerkusiazuen eskaeraren bat sinatu duzu



≈ 35.323 gazte nafar



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Azken bost urteetan...?*



Oinarria: Elkarriketatutako pertsonak, guztira.



Dirua eman diozu talde ekologistaren bati



≈ 12.371 gazte nafar



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Azken bost urteetan...?*



Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



Ingurumenarekin erlazionatutako protesta ekintza edo manifestazioetan parte hartu duzu



≈ 40.555 gazte nafar



*Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

6.3. Gazteen tipologia, ingurumenarekiko duten jarrerari dagokionez


Nafarroako gazteek klima-aldaketarekiko duten jarrera «konpromisozkoa» da, batez ere. % 85,5ek uste dute gure bizimodua soilik aldatuta konpontzen ahal dela klima-aldaketaren arazoa.

Bestalde, elkarrizketatutako gazteen % 6,5ek espero dute etorkizunean zientzia eta teknologia arazo hau konpontzeko gai izanen direla.

«Katastrofistak» gutxiago dira, % 4,6. Gazte horiek uste dute klima-aldaketaren arazoa oso serioa eta geldiezina dela eta, beraz, ezin izanen dugula ezer egin hura konpontzeko. Azkenik, «negazionistek» ez dute apenas ordezkaririk Nafarroako gazteen artean; gazteen % 1,2 dira.

Klima-aldaketari buruz dakizunaren arabera, baieztapen hauetako zein hurbiltzen zaio gehien zure ikuspuntuari?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



% 6,5
Itxaropentsuak

≈ 6.356 gazte

% 85,5
Konprometitatuak

≈ 83.605 gazte

% 1,2
Negazionistak

≈ 1.173 gazte

% 4,6
Katastrofistak

≈ 4.498 gazte

*Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

6.4. Nafarroako gazteriaren «eko» jokabideak


Gazteek ingurumenarekiko duten konpromisoa, halaber, **eguneroko bizitzan dituzten jokabideetan** ikusten ahal da:

- ✦ Gazteen % 76,4k esaten dute **etxe-ko ur-kontsumoa** gutxitu ohi dutela, hortzak garbitzen dituzten bitartean iturria ixtea, ura berrerrabiltzea edo dutxa laburrak egitea bezalako ekintzen bidez. Orokorrean, emakumeek konpromiso-maila altuagoa dute horrelako ekimenei dagokienez, eta pisu gehiago izaten dute adinak gora egin ahala. 25 eta 30 urte bitarteko gazteen % 82,1ek gutxitzen du normalean uraren kontsumoa, eta 18 urtetik beherako gazteen kasuan, zifra hori % 55,3 da.
- ✦ Etxean **energia kontsumitzeari dagokionez**, argiak edo etxetresna elektrikoak itzaltzea bezalako ekintzen bidez kontsumoa gutxitu ohi dutenen ehunekoa ia bost puntu baxuagoa da; % 71,6.
- ✦ 71,6k esaten dute oinez, bizikletaz nahiz garraio publikoa erabilia **mugitzen direla** udalerrian zehar, nahiz eta batez ere 18 urtetik beherakoek egiten duten hori, gidatzeko baimenik ez dutenek, hain zuzen ere. Hala ere, gainerako adin-taldeetan ere gazte askok dute ohitura hori, adinarekin galdu egiten bada ere.
- ✦ Bestalde, % 71,2k diote maiz erabiltzen dituztela **bilketa-guneak**, edo Udalari deitzen diotela funtzionatzen ez duten etxetresna elektrikoak edo gailu elektronikoak botatzeko.
- ✦ Oso desberdina da **ingurumenaren aldeko ekintza zehatzetan** parte hartzen dutenen kopurua. Elkarrizketatutako bi gazteetako batek ez du inoiz parte hartu ekintza kolektibo zehatzetan; adibidez, ibaiak edo parkeak garbitzea. % 11,2k maiz egiten dute horrelako ekintzaren bat.

6 Nafarroako gazteriak ingurumenari dagokionez dituen jarrerak eta jokabideak

Zein maiztasunekin egiten dituzu ekintza hauek?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Zein maiztasunekin egiten dituzu ekintza hauek?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Maiz egiten duzue...




Gizona (n=406)

Emakumea (n= 394)

18 urtetik behera (n=106)

18 eta 24 urte bitarte (n=373)

25 eta 30 urte bitarte (n=322)



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Erosketak egitean «**eco-friendly**» **jarrerak** edukitzeari dagokionez, konpromiso-maila jaitsi egiten da, aurretik ikusi dugunarekin alderatuz. Puntu honetan ere, adi-na eta bizitzeko egoera ere faktore erabakigarriak dira; adibidez, beren diru-sarrerekin soilik bizi direnek konpromiso-maila altua goa dute.


Hala ere, **orokorrean konpromiso gehiago ikusten da plastikozko** poltsak erabiltzeari uztearekiko; izan ere, % 88,0k diote etxetik poltsak edo orga eraman ohi dutela erosketak egiteko.

Erosketak egitean, hamar gaztetatik lauk kontuan hartzen dute **produktuen bilgarria gehiegizkoa ez izatea**. Antzeko kopuru batek dio **berrerabiltzen ahal diren bilgarriak** dituzten elikagaiak erosten dituela edo **tokiko ala hurbileko produktuak** aukeratzeko dituela, salgaiak garraiatzean sortzen den **aztarna ekologikoa** saihestu nahian.



Erosketak egitean, zein maiztasunekin...?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Erosketak egitean, zein maiztasunekin...?*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.

Maiz egiten duzu...



* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

6.5. Ingurumenaren aldeko konpromiso ekonomikoekiko jarrera

Ingurumena babesteko eta zaintzeko konpromisoa ezinbestekoa da, batzuetan kostu altuak ekartzen baditu ere. Baieztapen horrekin ados daude Nafarroako gazteen % 68,4.

Hamarretik ia bik (% 19,8k) uste du ingurumena babestu egin behar dela, baldin eta hartu beharreko neurriak oso garestiak ez badira.

Azkenik, ingurumenaren babesaren beharrezkoa dela baina herritarrentzat gastu gehigarri bat izan behar ez lukeela uste dutenak gutxiago dira (% 11,7); talde honetan, batez ere lan-merkatuan sartuta daudenak eta beren diru-sarrerekin bizi direnak baina besteen laguntza dutenak daude.


Nafarroako gazteen % 67,8 ados leudeke prezio altuagoak ordaintzarekin ingurumena babestea bermatzeko. Formula hau da babes handiena izan duena. % 59,5 ados daude gure bizimoduan murrizketak egitearekin, eta % 50,1 ados daude zerga gehiago ordaintzarekin, ingurumena babesteko gastuak ordaintzeko.



6 Nafarroako gazteriak ingurumenari dagokionez dituen jarrerak eta jokabideak

Ingurumenaren babesaren inguruan duten iritzia*

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.




	GENEROA		ADINA		
	Gizona (n = 406)	Emakumea (n = 394)	18 urtetik behera (n = 106)	18 eta 24 urte bitarte (n = 366)	25 eta 30 urte bitarte (n = 328)
Ingurumena babestea eta zaintzea ezinbestekoa da, batzuetan kostu altuak ekartzen baditu ere	% 67,0	% 69,9	% 71,2	% 66,6	% 69,7
Ingurumena babestu egin behar da, baldin eta hartu beharreko neurriak oso garestiak ez badira	% 19,9	% 19,6	% 22,3	% 22,2	% 16,1
Ingurumena babestea beharrezkoa da, baina ez luke gastu gehigarri bat izan behar herritarrentzat	% 12,8	% 10,5	% 6,5	% 11,3	% 13,8
Ns/nc	% 0,2	-	-	-	% 0,3


* Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra onartu zen.

Zenbateraino zaude ados...?

Oinarria: Elkarrizketatutako pertsonak, guztira.



* Gutxienekoa 0, «batere ados»; gehienezkoa 10, «gutziz ados».



Amaierako gogoetak

Nafarroako gazteek ingurumenarekiko konpromiso irmoa dute. Elkarriketatutako hiru gazteetatik batek adierazten du gaiak asko kezkatzen duela (% 34,0), eta gehienek esaten dute nahiko kezkatuta daudela (% 58,1). Azpimarratzekoa da emakumeek konpromiso-maila altuagoa adierazten dutela gai honetan gizonek baino. Aipatu beharra dago, halaber, ekologiarekiko eta ingurumenarekiko kontzientzia areagotu egiten dela gazteen adinak eta prestakuntz-mailak gora egin ahala.

Ebaluatutako gai guztien artean, **klima-aldaketa da Nafarroako gazteen artean kezka gehien eragiten duena, ingurumenari dagokionez**. Hori da agendaren lehen postuan kokatzen den gaia, gizarte gisa ditugun bestelako arazoan aipamenak bikoiztu baitzituen. Bigarren maila batean gelditzen dira, beraz, hondakin plastikoen pilaketa, uraren eta atmosfera-

ren kutsadura, biodibertsitatea galtzea edo ur gabezia bezalako arazoak.

Klima-aldaketak haien bizitza eta familiengan duen inpaktua, ordea, beste modu batera hautematen da eta kezkak gutxitu egiten dira; % 35,0k ikusten dituzte krisi klimatiko orokorraren eraginak eguneroko bizitzan.

Nafarroako gazteen iritziz ingurumenarentzat biziki arriskutsuak dira honako alderdiak hauek: **ibai, erreka eta lakuetan isurtzen diren hondakinak, industriaren emisioak, animalien eta landareen espezieak desagertzea eta lurraren tenperaturak gora egitea**.

Bestalde, **ibilgailuek egiten dituzten emisioak erlatibizatu egiten dira** nolabait; izan ere, gazteen % 50,8k uste dute «nahiko arriskutsuak» direla, eta % 33,0ra jaisten da «biziki arriskutsuak» direla esaten dutenen ehunekoa.

Badirudi orokorrean ados daudela esaten dugunean **Lurrak ez diola eutsiko biztanleriaren egungo hazkunde-erritmoari eta baliabideen gehiegizko ustiapenari**. Ildo beretik, gehienak ados daude gaur egun gizarte gisa egiten dugun ia guztiak ingurumenari kalte egiten diola esatearekin.

Nafarroako gazteek neurri eta alternatiba desberdinak defendatzen dituzte ingurumena babesteko:

Heziketa

Gazteen **% 55,2** informazio eta prestakuntza gehiago ematearen alde dago, pertsonak ingurumena babesteko konpromiso aktiboa har dezaten.

Energia berriztagarriak

Apustu argia egiten da energia berriztagarrien alde, herrialdeak etorkizunean izanen dituen premia energetikoak asetzeko alternatiba gisa (**% 85,4**).

Nazioarteko konpromisoak hartzea eta legeak zorroztea

Ingurumena babestearen inguruan nazioarteko akordioak egin beharko lirateke eta herrialdeek derrigor bete beharko lituzkete. Legeak ezarri beharko lirateke, enpresak eta herri-tarrak ekosistema babestera behartzeko.

Ingurumena babesteari dagokionez, gazteek industriaren eta enpresen inguruan eta haiengandik espero duten konpromiso-mailari buruz duten iritzia erakusten du zenbaterainoko erantzukizuna esleitzen dieten. **Izan ere, gazteen % 59,4k uste dute egokia dela heziketatik haratago joatea eta erantzukizun ekonomikoa ere ezartzea**, isun handien (gehiengoak hautatutakoa) nahiz jardun egokia dutenei emandako abantaila fiskal bidez.

Nafarroako gazteak subjektu aktiboak dira ingurumena zaintzeko eta babesteko prozesuan, eta ekintza txikienari ere garrantzia ematen diote. Etorkizunearn jasangarritasunaren arazoa konpontzen ahal duen eragile gisa zientzian duten konfiantza oso txikia da, **bizimoduan ere aldatetak egin behar direla uste baitute**. Nafarroako gazteen % 66,4k pentsatzen dute jokabide pertsonal bakoitzak nolabaiteko ekarpena egiten diola egoeraren konponbideari. **Etxeko ur- eta energia-kontsumoa gutxitzea**, ibilgailu pribatua erabiltzea saihesteko **garraio publikoaz baliatzea** edo **bilketa-guneak** erabiltzea bezalako ekintzak maiz egiten dituzte elkarrizketatutako hamar gaztetatik zazpik.

Erosketak egitean **plastikozko poltsa gutxiago erabiltzea** ere Nafarroako gazteen ohiko praktiketako bat da; izan ere, elkarrizketatutako gazteen % 88,0k erantzun baitute hori egiteko ohitura dutela. Hala ere, ez diote hainbesteko arreta ematen produktuen bilgarriek eta ontziek duten plastikoari; hamarretik lauk esan dute aintzat hartzen dutela faktore hori. Antzeko ehuneko batek dio **tokiko produktuak** kontsumitzen dituela, salgaiak garraiatzeak eragiten duen karbono-aztarna saihesteko.

Azkenik, Nafarroako gazteen % 11,9k esaten dute azken bost urteetan **talde edo elkarte ekologistaren** bateko kide izan direla. 11.700 gazte nafar izanen lirateke, gutxi gora-behera. % 12,7k diote talde ekologistaren bati dirua eman diotela azken bost urteetan.

Azken bost urteetan ingurumenearekin zerikusia duten **eskaerak sinatu** dituzten gazteak gehiago dira, % 36,1; gutxi gora-behera, Nafarroako 35.323 gazte.

Klimaren aldeko martxek eta manifestazioek ere pisu handia dute Nafarroako gazteen artean. % 41,5ek esaten dute ingurumenearen aldeko manifestazioen batean parte hartu dutela, batez ere ikasleek, mundu mailan egiten diren mobilizazioen ildo beretik.

